



**ANIZTASUNERAKO ETA
HEZKUNTZA-INKLUSIORAKO
ZUZENDARIAK HLBP
AHOLKULARITZEI EMANDAKO
JARRAIBIDEAK**

2023-24 IKASTURTEA

ANIZTASUNERAKO ETA HEZKUNTZA-INKLUSIORAKO ZUZENDARIAK HLBP AHOIKULARITZEI EMANDAKO JARRAIBIDEAK.

2023-24 IKASTURTEA

Sarrera	3
HLBP aholkularien eginkizunak	4
Lanaldia	6
HLBP aholkularien prestakuntza	7
Koordinazio egitura eta taldeen koordinatzaileen eginkizunak	8
Berriazko laguntza-baliabideen aurreikuspen-prozedura	11
Aholkulari hasi berrien tutoretza prozedura	12
Ikasturteko Plana 2023-24	13
Prestakuntza. Irakasleei eta irakasleak ez direnei zuzendutako mintegiak	18

S ARRERA

Aniztasun inklusiboari erantzuteko, beharrezkoa da curriculumaren eta metodologiaren arloko neurriak eta laguntza pertsonal eta teknikoak izatea, ikasle guztiek beren ikaste prozesuan parte hartu eta ikas dezaten, haien egoera pertsonala edozein dela ere. Esku hartze eraginkorra eta inklusiboena testuinguruan bertan ematen den erantzuna da, ikaslearen premiak sortzen diren ingurunean garatutakoa. Hori horrela da, ezgaitasuna definitzen duten testuinguru-faktoreen kasuan ez ezik, zailtasun-egoera guztietan ere, testuinguru naturalek laguntzen eta hobetzen baitute esku-hartzearen eraginkortasuna, eta eskola da, familiarekin batera, garrantzitsuenetako bat. Aniztasunarekiko hezkuntza -erantzunaren identifikazioari, ebaluazioari, esku-hartzeari eta monitorizazioari buruzko erabakiak ikasle eta irakasleengandik hurbilen dagoen instantzian hartzea arrakastaren bermea da.

Testuinguru horretan, aurrera egin behar da hezkuntza-laguntzako premia bereziak eragin ditzaketen baldintza pertsonalak identifikatu, ebaluatu eta monitorizatzeko eta horietan esku hartzeko prozesuetan. Ezinbestekoa da neurogarapeneko nahasmenduen, jokabide-nahasmendu larrien, mugitzeko desgaitasunen edo zentzumen-desgaitasunen tratamenduko espezialistak edukitzea ikasleen, familien eta irakasleen laguntza-premiei erantzun onena emateko.

Era berean, haurtzaroan agertzen diren gaixotasun kronikoek eta osasun mentalari lotutako arazoek intzidentziaren gehikuntzak eragin nabarmena dute hezkuntzan, eta proposamen berrien beharra ekarri dute, esparru horietan eskumenak dituzten eta ikasle batzuen baldintza pertsonalei eragiten dieten beste erakunde sanitario eta sozial batzuk barne hartuko dituztenak.

Horregatik guztiagatik, HLBP aholkularitzak hezkuntza-erronka berrietara egokitu beharko dira, eta ikasle guztien aniztasunari erantzun, haien garapen pertsonala eta soziala indartzeko, eskola inklusiboaren esparruan, ekitatea eta aniztasunaren arreta eta hezkuntza-inklusioa zainduta.

H LBP AHOIKULARIEN EGINKIZUNAK

Oro har, HLBP aholkulariei dagokie:

- **Eskola inklusiboaren garapena sustatzea**, ikasle guztiek parte hartzeko eta ikasteko prozesu gisa, kulturen, aniztasunaz hitz egiteko eta pentsatzeko moduen, politiken eta eskolako hezkuntza-praktiken aldaketa erraztuz.
- Ikastetxeei **aholku ematea** ikasteko eta parte hartzeko oztupoak identifikatzeko eta ezabatzeko prozesuetan, ikasle guztien garapen integrala berma dezaten, haien gaitasun-, emozio- eta gizarte-garapen osoari erreparatuta.
- Ikastetxeetako irakasleak eta irakasle ez diren profesionaleri **prestakuntza eta aholkularitza** ematea proiektu inklusiboak garatzeko.
- Berritzegune Nagusiko eremuetako **taldeekin lankidetzan** aritzea, beren eginkizunen barruan.

Zehazkiago, funtzio hauek garatuko dituzte:

- Zuzendaritza taldeekin koordinatzea eta Ikastetxeetako laguntza edo orientazio psikopedagogikoko taldeekin lankidetzan aritzea, berariazko hezkuntza-laguntza behar duten ikasleen premiak identifikatu eta ebaluatzeko eta familiei orientazioa emateko.
- Ebaluazio psikopedagogikoa, eskolatzeko-proposamena eta esku hartzeko proposamena egitea, beharrezko neurriak eta laguntzak zehaztuz.
- Ikastetxeetako profesionalen jarduketara inklusiboak sustatzea eta laguntzea. Horretarako, aniztasuna ikasgelako programazioaren abiapuntutzat hartzen duten estrategiak bultzatu eta giza baliabideak eraginkortasunez mobilizatuko dituzte, hezkuntza-laguntza berariazko premiak dituzten ikasleen esku hartzea erraztuko duten antolakuntza- eta metodologia-irizpideen gainean beharrezkoak diren laguntzak bermatzeko.
- Aginduzko detekzio goiztiarraren prozesuen garapenean (arreta goiztiarra eta AGH) orientatzea, formatzea, esku-hartzea bideratzea eta jarraipena egitea.
- Aholkularitza, prestakuntza eta jarraipena egitea ikasteko zailtasun espezifikoaren eta gaitasun handien erantzunari buruz (Jarduera Plan Pertsonalizatuak).
- Hezkuntza-laguntza profesional espezifikoari (irakasle aholkulariak eta orientatzaileak, pedagogia terapeutikoko irakasleak, entzumen eta hizkuntzako irakasleak, hezkuntza-laguntzako espezialistak, fisioterapeutak eta terapeuta okupazionalak) prestakuntza ematea eta laguntzea beren eskumeneko arloetan.

- Aldi berean esku hartzen ari diren beste eragile komunitario, sozial eta sanitario batzuekin beren jarduerak koordinatzea.
- Ikasgela egonkorren eta helduarora igarotzeko eskolatzeko proposamenak egitea familiak prozesuan inplikatur eta programen jarraipena, aholkularitza eta plangintza egitea, azken hori haien eraginguneko aholkulari eta koordinatzailearekin batera.

L ANALDIA

Berritzeguneei atxikitako pertsonalaren lanaldia uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuaren (EAEko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituena) 33.3, 34. eta 35 artikuluetan ezartzen da. Hortik eratorrita, hona hemen kontuan hartzekoak:

- Urteko egutegia 1.200 ordukoa izango da (200 egun). Lan-egutegia irailaren 1ean hasi eta uztailaren 15ean amaituko da urtero.
- Asteko lanaldia 30 ordukoa izango da, goiz eta arratsaldez (ostiralean izan ezik, 6 orduko lanaldi jarraitua izango delako), eta behar besteko malgutasunez egokituko da eragin -eremuko ikastetxeen beharrianetara, dagokion lurralde-arduradunaren onarpenarekin. Eguerdiko tarteak ordu eta erdi iraungo du gutxienez.

Berritzeguneko aholkulari bakoitzak, jarraian agertzen diren hiru ordutegi-proposamenen artean, ikasturtean beteko duen lan-ordutegia aukeratuko du, eta berritzeguneko zuzendariari jakinaraziko dio iraileko lehen astean, horrek ontzat eman dezan. Ordutegi hori ikasturte osoan mantendu beharko da, lanaldi trinkoan izan ezik.

- a) 8:30 - 13:00 / 14:30 - 16:00
- b) 9:00 -13:30 / 15:00 - 16:30
- c) 9:30 -14:00 / 15:30 - 17:00

Era berean, lanaldi trinkoan bi proposamenen artean aukeratu beharko dute prozedura bera jarraituz:

- a) 8:30 - 14:30
- b) 9:00 - 15:00

Egutegi honi salbuespen puntualak egin behar izatekotan, berritzeguneko zuzendariari jakinarazi beharko zaio, baimena izate aldera, eta koordinatzaileari komunikatuko zaio.

- Irizpide orokor gisa, kontuan hartu behar da lanaldi jarraitua (6 ordu) inguruko ikastetxeen egutegi orokorrera egokituko dela (ekaina, uztaila eta iraila). Edonola ere, tarte bera izango da Berritzegune bakoitzeko kide guztientzat.
- Aholkulari guztiek astero erregistratu beharko dute (berritzeguneak.net aplikazioan) zein ikastetxetan ari diren beren eginkizunak betetzen, berritzegunean edo erangigunean fisikoki ez badaude. Berritzeguneko zuzendarien eta HLBP koordinatzaileen eskura jarriko dute informazio hori.



H LBP AHOLKULARIEN PRESTAKUNTZA

Hainbat motatako prestakuntza-ekintzak planifikatuko dira:

- a. Langile berrien **hasierako prestakuntzara** bideratutako ekintzak. Prestakuntza-modulu bat antolatuko da langile berrientzat, 15 ordukoa.
- b. **Gaitasun profesionalak** finkatzea helburu duten jarduerak.
- c. Era berean, modu sistematikoan jorratuko dira hezkuntza-arloko aholkularitza eta esku-hartzea bateratzera eta eztabaidatzera bideratutako ekintzak, baita jardunbide egoki partekatutako garatzera bideratutakoak ere.

Prestakuntzaren alorrean planteatzen diren jardueretan parte hartzea **nahitaezkoa** da.

Prestakuntza beti lotuta dago jarduera orokorretan eta, beste kasu batzuetan, jarduera espezializatuetan, garatzen diren eginkizunetan aritzearekin.

2023-24 ikasturteko prestakuntza-ekintzen plana I. eranskinean zehazten da.

K OORDINAZIO-EGITURA ETA TALDEEN KOORDINATZAILEEN EGINKIZUNAK

1.- **Eskualdeko zortzi talde** eratuko dira, eta horietako bakoitzean koordinatzaile bat izendatuko da.

BIZKAIA: 4 talde

- B01-B02: 13 aholkulari. Koordinatzailea: Begoña López
- B03 - B04 - B05: 13 aholkulari. Koordinatzailea: Beatriz Bafino
- B06 - B09 - B10: 12 aholkulari. Koordinatzailea: M^a Luisa Revilla
- B07-B08: 9 aholkulari. Koordinatzailea: Ana Zaida Martínez de Alba

ARABA: Talde 1

- A01- A02: 14 aholkulari. Koordinatzailea: Marta Salazar

GIPUZKOA: 3 talde

- G01- G02: 13 aholkulari. Koordinatzailea: Alaitz Iglesias
- G03 - G05: 8 aholkulari. Koordinatzailea: M^a José Garmendia
- G04 - G06: 9 aholkulari. Koordinatzailea: Koldo Bañares

2.- Bere taldeko aholkulari eta kide gisa dagozkion eginkizunez gain, **koordinatzaileek honako eginkizun** hauek izango dituzte:

- a) Taldearen esparruan informazio-trukea bermatzea.
- b) Ikastetxeen banaketa orekatua sustatzea, koordinatzen duten taldeko HLBP aholkularien artean.
- c) Hezkuntza Bereziko ikastetxeen ardura hartzea (Aspace, Gautena, Apnabi, Asbibe, Gorbeialde HBI).
- d) Aholkulari hasi berrien tutoretza-prozesua egingo duten aholkulariak izendatzea eta tutoreekin batera horien jarraipena eta ebaluazioa egitea.
- e) Ezarritako lan-prozedurak ezartzen laguntzea, jarduteko irizpide komunak sustatuz.
- f) Ezarritako jarraibideak modu bateratuan aplikatzen direla ziurtatzea.
- g) Aholkulariekin batera ikasgela egonkorretarako eta helduarora igarotzeko programetarako ikasleen proposamenak eta plangintza lantzea eta Ordezkaritzetako Berrikuntza Zerbitzuari aurkeztea.
- h) Aholkularien artean lanak esleitzea, haien banaketa orekatua bultzatuz.
- i) Taldeko kideen lankidetzeta, kohesioa eta talde-espirtua sustatuko dituen lan-giroa sortzea sustatzea.

- j) AGH protokoloaren hirugarren fasean, ebaluazio pedagogikoan hain zuzen, lana eragingunean antolatzea era orekatuan aholkulari guztien artean.
- k) Taldearen bilerak prestatzea eta moderatzea.
- l) Hamabostean behin egiten diren koordinazio-bileretan, hezkuntza-arloko aholkularitza eta esku-hartzeari buruzko eztabaidan eta bateratze-lanean eta praktika egoki eta kasuen azterketa partekatuetan oinarritutako ekintzak sustatzea.
- m) Aurreikusitako bileretan eta koordinazio-saioetan parte hartzea.
- n) Eragingunean sor daitekeen gora beheren berri lurralde arduradunari jakinaraztea.

Esleituriko eginkizunetarako, koordinatzaileek **lanaldiaren erdia** izango dute.

3.- Honako **koordinazio-maila hauek** ezarriko dira:

1. Eskualde-taldeak/talde-koordinatzailea:

- Hamabostean behin. Ostiraletan, 9:30 - 11:30 / 12:00 - 14:30. Kasuen analisisa – Kasu praktikoen eta jardunbide egokien azterketa
- Hilean behin lurralde bakoitzeko taldeen koordinazioa.
- Lekua: Berritzegunea (txandaka, bi edo hiru berritzegunek parte hartzen badute).

2. Berrikuntzako lurralde-arduradunak - BNko arduraduna - taldeen koordinatzaileak:

- Hilean behin. Ostiraletan, 9:30 - 14:30
- Lekua: Berritzegunea - Lurralde Ordezkaritza (txandaka hiru lurraldeetan).

3. Lurraldeko koordinatzaileak eta lurralde berrikuntza arduraduna:

- Hilean behin. Ostiraletan, 9:30 - 12:00
- Lekua: Lurralde bakoitzeko eragingune baten egoitza.

4. Talde eragilea. Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako zuzendaria - Berrikuntzako lurralde-arduradunak - BNko arduraduna - HLBP zerbitziburua:

- Hamabostean behin. Ostiraletan, 9:30 - 14:30
- Lekua: Bizkaiko Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritza.

5. Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako zuzendaria - Berrikuntzako lurralde-arduradunak - BNko arduraduna - HLBP zerbitziburua - HLBP aholkulariak:

- Ikasturtean behin edo bitan
- Lekua: Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritza

6. *Eskola inklusiboa garatzeko esparru-planaren* ekintzak garatzeko eratzen diren **lantaldeetako kideek** hilean **bost ordu** emango dituzte zeregin horretan.

Taldeek asteroko lan-saiorako eguna, ordutegia eta tokia adostuko dituzte. Oro har, lantalde bakoitzak 8 kide izango ditu gehienez.

Era berean, jarraipena egiteko koordinazioak ezarriko dira lantaldeen eta BNaren artean.

Koordinazio-maila guztietan egiten diren bilera guztien akta egingo da.

Bileren kronograma II. eranskinean zehazten da.

B ERARIAZKO LAGUNTZA-BALIABIDEEN

AURREIKUSPENAREN PROZEDURA

Kontuan hartuta aurreikuspenen prozedurak duen garrantzia, egokia ikusten da prozeduran kontuan hartu beharreko hainbat alderdi islatzea:

1. Koordinatzaileak arduratuko dira beren eragingunea osatzen duten aholkulari guztiek hezkuntza langileak eta irakasleak esleitzeko irizpideak eta proposatutako laguntzaren intentsitateak modu berean aplikatzeaz, Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako zuzendaritzaren jarraibideak betez.
2. Aholkulariek ikasleek behar dituzten berariazko laguntza-baliabideak identifikatuko dituzte, egindako ebaluazio psikopedagogikoaren arabera (0 bertsioa).
3. Koordinatzaileek beren eraginguneak planteatutako aurreikuspen-proposamena egingo dute (1 bertsioa), berrikuntza lurraldeburuei eta berrikuntza teknikariei aurkeztu eta haiekin kontrastatuko dute. Kontrastearen ondorioz, dagozkion erabakiak hartuko dira: proposamena baliozkotzea (1 bertsioa) edo proposamena egokitzea (2 bertsioa), adostutako aldaketen arabera.
4. 2 bertsioa behar izanez gero, bilera bat egingo da aztertzeko, eta eragingune bakoitzeko koordinatzaileak, aholkulariek, berrikuntza lurralde-arduradunek eta berrikuntzako teknikariek parte hartuko dute.
5. Lurraldeetako berrikuntza-arduradunek proposamena aurkeztuko diote Talde Eragileari, berrikusteko eta onartzeko.
6. Irakasleen kasuan (PT-EHI), ikastetxeek eta sindikatuek LPZ proposamena jasoko dute, eta egokitzat jotzen dituzten alegazioak egingo dituzte.
7. Hezkuntzako langileen kasuan (HLE), Lakuako HLBP zerbitzuak jakinaraziko die ikastetxeei zer zuzkidura esleitu zaien, eta haiek bidezko alegazioak egingo dituzte.
8. Lurralde-ordezkaritzek alegazio horiek aztertu eta proposamena egingo diote Lakuako HLBP zerbitzuari.

AHOLKULARI HASI BERRIEN TUTORETZA-PROZEDURA

1.- LEHEN HARRERA-MAILA. Berrikuntzako lurralde-arduradunak

Berrikuntzako lurralde-arduradunek **saio bat** antolatuko dute **irailean** HLBP aholkulari gisa zerbitzuan hasten diren pertsona guztiekin, eta informazioa emango zaie Hezkuntza Sailaren eta inklusioari laguntzeko zerbitzuaren egiturari, antolaketari eta funtzionamenduari buruz, bai eta Eskola Inklusiboa Garatzeko Esparru Planean ezarritako helburuei eta ekintzei buruz ere.

2.- BIGARREN HARRERA-MAILA. Taldeen koordinatzaileak

- Taldeen koordinatzaileek Berritzeguneko lankideen aurkezpena egingo dute.
- Sartu berrien eta beren aholkulari-tutoreen arteko aurkezpena egingo dute.
- Taldearen antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko informazioa emango dute, bai eta urteko planari lotutako helburuei eta ekintzei buruzkoa ere.
- Esleituta dituzten ikastetxeen berri emango dute.
- W67 aplikazio informatikoaren funtzionamenduari buruzko informazioa emango dute.

3.- HIRUGARREN HARRERA-MAILA (ikasturte amaierara arte). HLBP aholkulari tutorea

Zerbitzuan sartzen den aholkulari berri bakoitzak beste aholkulari baten tutoretza izango du ikasturte osoan.

Tutore aholkularia arduratuko da prestakuntza-saioetan eta koordinazio-bileretan landutakoa praktikan jartzeaz eta aholkulari berriari garatu beharreko eginkizunak eta zereginak behar bezala betetzeari buruzko informazioa eta aholkularitza eta jarraipena emateaz.

Era berean, aholkulariari lagunduko dio ikastetxeetara egiten duen lehen bisitan.

Ikasturtea amaitutakoan, tutoretzapean duen eta zerbitzu eginkizunetan dagoen aholkulariaren gaitasunen ebaluazioa/balorazioa egingo du.

KASTURTEKO PLANA 2023-24

Berriazko helburuak eta horietatik eratorritako ekintzak *Eskola Inklusiboa Garatzeko Esparru Planetik* eratortzen dira. Ekintza bakoitza garatzeko, HLBP aholkulariek osatutako lantaldeak eratuko dira.

1. HELBURUA: Elkarbizitzarako eta ekitaterako esparru komun bat zehaztea, aniztasunaren balioa indartu eta hezkuntza-arloko erantzunak eta praktikak ikasle guztien ikaskuntza-premietara eta -gaitasunetara egokitzeko.

1.4. Berriazko helburua.

Ikasle guztien ikaskuntza eta partaidetza sustatzea, baita adimen-gaitasun altuak dituztenen kasuan ere, horiek ere ahalik eta garapen pertsonal, akademiko eta sozialik handiena eta orekatuena izan dezaten, testuinguru inklusibo batean.

- **Ekintza:**
 - Adimen-gaitasun handiak dituzten ikasleentzako protokoloarekin jarraitzea eta egindakoa ebaluatzea.
Adierazlea: 22-23ko ebaluazioa eta 23-24ko prozesuaren ebaluazioa egin eta ondorioetan hobetze-proposamenak identifikatu dira.
Arduraduna: **Gaitasun Handien Taldea.**

2. HELBURUA Politika eta jardunbide inklusiboak sustatzea, EAEko hezkuntza-sistema osoan egiturazko jarduerak gauzatu.

2.1. Berriazko helburua. Aniztasunarekiko erantzunari buruzko indarreko araudia eguneratzea eta garatzea, hezkuntza inklusiboaren printzipioak modu orokortuan aplika daitezen sustatzeko.

- **Ekintza:** Aniztasunari erantzuteko dekretua argitaratzea.
Adierazlea: Dekretua argitaratu da.
Arduraduna: **AHI Zuzendaritza.**
- **Ekintza:** Aniztasunari erantzuteko dekretutik eratorritako aginduak egitea.
Adierazlea: Aipatutako aginduak argitaratu dira.
Arduraduna: **AHI Zuzendaritza.**
- **Ekintza:** Hezkuntzarako laguntza Zerbitzuaren eginkizunak eguneratzea, dekretu berriari adierazitakoarekin bat etorriz..
Adierazlea: Dagokion araua argitaratu da.
Arduraduna: **AHI Zuzendaritza.**

2.2. Berariazko helburua. Hezkuntza-sistema osoan laguntzen esleipena eta antolakuntza egokitzea, hartara ikastetxeetan ikasle guztien arrakasta bermatzeko autonomia handiagoa sustatzeko.

- **Ekintza:** W67 aplikazioa kudeatzeko prozedurak bateratzea, eguneratzea eta egokitzea.
Adierazlea: W67 aplikazioan kudeaketa prozedura eguneratu da.
Arduraduna: **Prozesuen taldea (W67)**

2.3. Berariazko helburua. Kalitatezko haur-hezkuntza sustatzea, Arreta Goiztiarreko Ereduaren eta ikerketa egiaztatuetan oinarritutako estrategia metodologikoen ezarpena bermatuz, eta ikasle guztiei beren kompetentziak eta ikaskuntza garatzeko bidea emanez, dagokion etapan bertan zein Oinarrizko Hezkuntzan.

- **Ekintza:** Eragingune guztietan Arreta Goiztiarreko Programaren garapena bermatzea.
Adierazlea: Aipatutako prozesua modu sistematikoan gauzatzen dituzten HHko ikastetxeen %80a izan da.
Arduraduna: **Arreta goiztiarreko taldea.**
- **Ekintza:** Eskaletako itemak errebisatzea eta egokitzea.
Adierazlea: itemak gaurkotu eta eskaletan txertatu dira.
Arduraduna: **Arreta goiztiarreko taldea.**
- **Ekintza:** EAEko Arreta Goiztiarreko Ereduaren testuinguruan integratutako arreta sustatzea, Arreta Goiztiarreko esku-hartze taldeekin (AGET) eta osasun taldeekin koordinazio sistematikoa barne hartzen dituzten banakako planak diseinatu.
Adierazlea: HHan JPPa diseinatu dituzten ikastetxeen ehuneko %70a izan da.
Arduraduna: **Arreta goiztiarreko taldea**
- **Ekintza:** HHko irakasleak prestatzea HLBPen detekzioan, prebentzioan eta arretan.
Adierazlea: Erkidegoko HHko irakasle guztiek formazioa jaso dute.
Arduraduna: **Arreta goiztiarreko taldea eta HGN taldea**
- **Ekintza:** Goiz hautemateko eta goiz esku hartzeko prozesuak garatzea eta ezartzea.
Adierazlea: Hizkuntza Garapen Nahasmendua goiz detektatzeko gida diseinatu da. **HGN taldea**

2.4 Berariazko helburua: Gizarteratzeko laguntza espezifikoko arloa garatzea aniztasunaren aldeko erantzun integratua eta inklusiboa emateko.

- **Ekintza:** Garapen intelektualaren eta autismoaren espektroaren nahasmendua dutenei hezkuntza-erantzuna emateko, gune bat sortzea.
Adierazlea: Inklusiogunean autismo- espektroaren nahasmendurako esparrua sortu da.
Arduraduna: **TEA taldea**
- **Ekintza:** Garapen motorraren nahasmenduak dutenei hezkuntza-erantzuna emateko, gune bat sortzea.
Adierazlea: Inklusiogunean garapen motorraren nahasmendurako esparrua sortu da.
Arduraduna: **GMN taldea**
- **Ekintza:** KSHOen erabilera sustatzea, protokoloan ezarritakoaren arabera.
Adierazlea: Protokoloa inplikaturako profesional guztiei aurkeztu egin da.
Adierazlea: HLBP aholkulariek Protokoloan azaldutako profesionalen funtzioen betetze mailari buruzko datuak bildu dituzte hezkuntza-premia intentsiboak dituzten ikasleen % 90ean. Datuen bilketa EHLren mintegien bidez kudeatuko da (BN eta EHLen mintegiko HLBP aholkulariek).
Adierazlea: Komunikazio Handigarriak eta Ordezkoak "Inklusiogune" web-esparruan garatu da.
Arduraduna: **KSHO taldea.**

3. HELBURUA Ikastetxearen autonomia eta erantzukizuna sustatzea, ikasle guztiekiko hezkuntza-alorreko kudeaketan eta esku-hartzean.

3.2. Berriazko helburua. Ikaskuntza-zailtasunak eta Oinarrizko Hezkuntzan agertu ohi diren zailtasunak goiz hautemateko eta horietan esku hartzeko prozesuak garatzea.

- **Ekintza:** Berriazko ikaskuntza-zailtasunen eta AGNHaren detekzio goiztiarreko eta esku-hartzeko protokoloa pilotatzea amaitzea 30 ikastetxetan.
Adierazlea: Pilotajea burutu eta protokoloaren ezarpen unibertsalerako hobetzeko proposamenak egin dira.
Arduraduna: **IZE-AGHN protokolo-taldea.**

3.3. **Berariazko helburua.** Hezkuntzako iragateak hobetzea eta sistematizatzea, bai eta beste gizarte- eta komunitate-sistema batzuetan gertatzen direnak ere.

- **Ekintza:** Arreta integratuko protokoloak diseinatzea hezkuntza-etapen, eskolatzeko-modalitateen edo beste hezkuntza-, gizarte- edo osasun-sistema batzuen arteko trantsizioetarako.
 - Desgaitasun intelektualaren kasuan, helduarora igarotzeko programak berriz diseinatzea eta ikastetxe desberdinetan ezartzea.
Adierazlea: Helduarora igarotzeko programak diseinatu eta hainbat ikastetxeetan ezarri dira.
 Arduraduna: Helduarora igarotzeko taldea.
- **Ekintza:** Arreta Goiztiarreko erantzukizuna duten sistemen arteko iragate-protokoloak gara daitezen sustatzea, haurren eta familien premiak ongi ebaluatzen direla eta egokitzapen-prozesuak malguak direla bermatuz.
 - Igarotzearen ikuspegia edo eskolatzeko-modalitatean aldaketa garrantzitsuak dakartzaten ekintzetarako jarduketako prozedurak diseinatzea.
Adierazlea: Jarduketa prozedurak diseinatu eta martxan jarri dira.
 Arduraduna: Arreta goiztiarreko taldea, helduarora igarotzeko taldea, OETH taldea, jokabide-taldea.

4. HELBURUA: Modu eraginkorrean onartzea zer-nolako zeregina betetzen duen hezkuntza-komunitateak ikasle guztien arrakasta lortzeko, eta elkarrekintza aktiboki sustatzea haien ongizate psikosoziala erdiesten laguntzen duten beste sistemekin, hau da, gizarte- eta osasun-sistemekin.

4.2. **Berariazko helburua.** Gizarte- eta osasun-sistemekin partekatutako esku hartzeko guneak garatzea, aniztasunaren aldeko erantzun integratua eta inklusiboa emango duen gizarte, osasun eta hezkuntzako gune bat sortzen joateko.

- **Ekintzak:** Ospitaleetako eta Etxez Etxeko Arretarako eta Hezkuntza Arreta Terapeutikorako Zentroak ebaluatzea eta eguneratzea. **OETH taldea.**
 - UTHari eta APDari buruz osasunarekin lotuta ezarritako akordioen jarraipena egitea.
Adierazlea: Hartutako akordioen jarraipena egin da.
 Arduraduna: **OETH taldea.**
 - OETH zentroetako AJA dokumentuen jarraipena eta ebaluazioa egitea
Adierazlea: AJA dokumentua eginda dago eta dokumentu bizia den neurrian, aspektu berriak txertatzen dira hiru lurraldeetan.
 Arduraduna: **OETH taldea.**

- UTHetarako diseinatutako JPPen lehen ereduaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.
Adierazlea: Ikasle guztiek JPPa dute eta horren bitartez ikaslearen jarraipena eta ebaluazioa egin da.
Arduraduna: [OETH taldea](#).
- **Ekintza:** Portaera erregulatzeko zailtasunak dituzten ikasleei hezkuntza-erantzuna emateko eredia ezartzea ikastetxeetan. [Jokabide-taldea](#).
 - Pilotajearen egondako ikastetxeekiko koordinazioa mantentzea.
Adierazlea: Koordinazioa aldiro aldiro mantendu da.
Arduraduna: [Jokabide-taldea](#).
 - Pilotatzean lortutako ondorioetan oinarrituta, diseinatutako JPPen jarraipena, ebaluazioa eta eguneratze lana egitea.
Adierazlea: Portaera erregulatzeko arazoak dituzten ikasleen ikastetxeetako %70ean JPP-ak diseinatu, jarraitu eta ebaluatu egin dira.
Arduraduna: [Jokabide-taldea](#).
 - Krisialdirako Protokoloa eta eskuhartzearen kontuan hartzeko neurri berreraikitzaile eta zuzentzaileen bilduma sortzea.
Adierazlea: Bilduma egin da.
Arduraduna: [Jokabide-taldea](#).
 - Portaera erregulatzeko zailtasunak dituzten ikasleei hezkuntza-erantzuna emateko Protokoloa amaitzea eta zabaltzea.
Adierazlea: Protokoloa erkidego osoan zabaltzeko da eta edozein profesionalak eskuragarri dauka.
Arduraduna: [Jokabide-taldea](#).

III. eranskina.- Lan-taldeak eta Mintegiak

Eragingune bakoitzak egokituko eta zehaztuko du ikasturteko plangintza bere eragin eremura.

P

RESTAKUNTZA – IRAKASLEEI ETA EZ-IRAKASLEEI

ZUZENDUTAKO MINTEGIAK

Irakasleei eta irakasle ez diren profesionalei prestakuntza eta aholkularitza emateko eginkizuna betetze aldera, eragingune bakoitzeko lan-taldeek prestakuntza-mintegiak eta -moduluak antolatuko dituzte, BNko arduradunaren koordinaziopean.

Eragingune desberdinetako lan-taldeek honako mintegi hauek eramango dituzte aurrera, **hileroko maiztasunarekin**, nork bere eremuan:

1. PT mintegia.
2. Irakasle aholkularien mintegia.
3. Irakasle orientatzaileen mintegia.
4. ALE mintegia.
5. Hiru hilean behin Arreta Goiztiarreko koordinazio-bilerak/mintegia egingo dira Haur Hezkuntzako koordinatzaileei zuzenduta.
6. Hiru hilean behin koordinazio-bilerak/mintegia egingo dira eskualde bakoitzean gela egonkorretako irakasleentzat.
7. Hiru hilean behin koordinazio-bilerak/mintegia egingo dira eskualde bakoitzean ZIG geletako irakasleentzat.

ANTOLAKETA

- Mintegiak arratsaldean egingo dira. Aurrez aurrekoak edo online izan daitezke.
- Eragingune bakoitzeko HLBP eremuko arduradun bat egongo da mintegika, mintegi hauek diseinatzeko eta aurrera eramateko.
- BNko arduradunek mintegi horietan landu beharreko gaiak proposatuko dizkiete gainerako arduradunei.
- Mintegi saioak garatu baino 2-3 aste (mintegi bakoitzean erabakiko da) lehenago BNko arduraduna eta mintegi arduradunak bilduko dira saioak prestatzeko: ezarritako gaiaren inguruko ekarpenak egingo dira, mintegiaren gai-ordena adostuko da eta landu beharreko kontzeptuak, materialak... bateratuko dira.

IV. eranskina. Mintegien kronograma

